



# 2 Puzzlea


# Denbora

'Lirain' tximeletak udaberrian ateratako argazkia bidali digu. Argazkia erabat osatzea, ordea, zure lana da.



# 3 Nazioak eta banderak

Geografia klasean munduko banderak ikasten ari dira Lierni eta ikaskideak. Banderak hauek zein herrialdeetakoak diren ba al dakizu?



5.-2 eta 6.

H, 7-B, 8-E, 9-F. 3.-a) Kuba, b) Finlandia, c) Australia, d) Suedia.

Erantzunak:

1.- Martin Fiz-maratoia, Mikel Odrizola-20km martxa, Marta Mendia-gorako jauzia eta Virginia Berasategi-triatloia. 2.- I-F, 2-D, 3-A, 4-I, 5-C, 6-

Hamaika puzzle izango dituzu etxean noski, baina zuk egindakoarekin jolastea gustatuko al litzaizuke?


## Txitoaren puzzlea



### Beharrezko materiala


- Guraizeak.
- Paper eranskor zuria, gorria, berdea, horia eta gardena.
- Arkatz markagailu beltza.
- Orri more bat (A4 tamainakoa).
- Plastik gardeneko kaxa bat.

### Egiteko modua



1 Paper eranskorren atzeko aldean hautsitako arrautza, txitoaren gorputza, hegoa eta mokoa eta belarra marraztu behar dituzu. Elementu bakoitza dagokion paperean marraztu behar da: hots, arrautza egiteko, paper zuria erabili; txitoaren gorputza, mokoa eta hegoa egiteko, paper horia; eta belarra egiteko, berriz, paper berdea. Ondoren, marraztutako piezak moztu.


2 Paper morearen erdian txitoaren gorputza eta mokoa itsatsi. Arkatz markagailuarekin, txitoaren begiak marraztu behar dituzu.



# -pasa

## 5 Sarraila

Gordelekuko giltza galtzen bazuen ere, Urkok bi kopia atera zituen. Giltza hauei begiratuta, asmatuko al duzu zein den gordelekukoa?








## 4 Labirintoa



'Kaxper'-ek kanpora irten nahi du, buelta bat ematera.

Horretarako, ordea, uhala hartu beharra dauka.

Lagunduko al diozu uhal hori bilatzen?



**3** Gainerako elementuak ere itsatsi paperaren gainean. Lehenengo arrautzaren bi zatia itsatsi -zati bat, txitoaren gainean, eta bestea, gorputzaren azpian-. Ondoren, hegtoa itsatsi, eta, azkenik, belarra arrautzaren oinarriaren gainean.



**4** Orri morearen gainetik paper eranskor gardena ipini. Behin orria azaleztatuta ostean, nahi adina zati egin ezazu orria. Puzzlea eginga dago, eta orain, zure lana irudia berriro osatzea izango da. Txitoaren puzzlea egin beharrean, zure gustuko marrazkiarekin beste puzzleren bat egin dezakezu.

**5** Gure puzzlea gordetzeko, plastiko gardeneko kaxa erabiliko dugu. Kaxa apaintzeko, txitoaren irudia erabil dezakegu. Horretarako, puzzlea egiteko eman ditugun lehen hiru pausoak jarraitu behar dituzu. Irudiko elementuak paperean itsatsi beharrean, ordea, kaxaren estalkian itsatsi behar dira.

